



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2025/11/12



B E R A K O U D A L A

herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

2025EKO AZAROAREN 12KO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2025-11-12.
Hasiera ordua: 08:00.
Bilkura mota: berezia eta presakoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Inés R. Matxiarena Aldalur
Patxi Castillo Graciarena
María Guadalupe Mendigutxia Etxebeste
José Esteban Aguirre Zubieta
Francisco Larrechea Lazcano

HERRIRAKO

José Antonio Oyarzabal Iribas
Andoni Andueza Intxaurrenondo

JUSTIFIKATUTAKO EZ EGOTEAK:

Adela Arlegi Goienetxe
Ángel Pombar Sainz

JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:

Maidier Iantzi Goienetxe

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIK (behar bezala egindako deialdiaren gai-zerrendan sartu zirenak):

1. DEIALDIAREN PRESA BERRESTEA.

Alkateak premiazko bilkura honen deialdia egiteko arrazoiak azaldu ondoren (Matzadako loturaren obrak urtea amaitu baino lehen hasi behar dira), **aho batez** berretsi da deialdia presazkoa dela.

2. MATZADA KALEAREN ETA EZTEGARA PASEALEKUAREN ARTEKO HIRI-LOTURA (NA-1310ETIK NA-4410ERA LOTZEN DUEN SAIHESBIDEA) GAUZATZEKO PROIEKTUKO 1. FASEAREN OBRAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA.

Ikusirik Matzada kalearen eta Eztegara Pasealekuaren arteko hiri-lotura (NA-1310etik NA-4410era lotzen duen saihesbidea) gauzatzeke proiektuko 1. fasearen obrak kontratatzeke espedientea, agiri hauek dituen:

- Altair Ingenieria y Arquitectura SLk idatzi eta Antton Lete Núñezek 2022ko uztailean



SINATZAILEA

Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2025/11/12



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AC9F FVHR YN2M PDAT

AKTA 2025-11-12 (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 241578

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

3tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2025/11/12



SINATZAILEA

Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURUJEGANA
2025/11/12

sinatutako “Berako Matzada kalearen eta Eztegarra pasealekuaren arteko hiri-lotura gauzatzea” izeneko obra-proiektua.

- 1. fasearen separata, teknikari berak idatzia 2025eko otsailean.
- Kontratuaren balio zenbatetsia 629.063,68 eurokoa da.
- Beharren txostena eta proiektuaren zuinketa akta, udal arkitektoak eginak 2025eko azaroaren 10ean.
- Kontratazioaren plegu arautzailea.
- Idazkariak 2025eko azaroaren 11n egindako txostena.
- Kontu hartzaileak 2025eko azaroaren 11n egindako fiskalizazio txostena.

Kontuan hartuta urte anitzeko gastua dela, ondoko aurrekontu ekitaldien artean banatuko dena:

- Aurtengo ekitaldia (2025): 1-4530-61901 aplikazioa, "Ikastola-Matzada lotura", kreditu nahikoarekin.
- 2026. urtea: 2026. urteko aurrekontuetan helburu horretarako gaitzen den aplikazioa, kreditu nahikoa egotearen baldintzapean.

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legean eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 224. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera,

aho batez ERABAKI DA:

1. Onestea aipatutako proiektuaren separata eta Matzada kalearen eta Eztegarra Pasealekuaren arteko hiri-lotura (NA-1310etik NA-4410era lotzen duen saihezbidea) gauzatzeko proiektuko 1. fasearen obrak kontratatuzeko espedientea, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea, kontratua esleitzeko publizitate komunitariorik gabeko prozedura irekiaren bidez.

2. Kontratazioaren plegu arautzailea onestea.

3. Gasturako baimena ematea.

4. Lizitazio iragarkia argitaratzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

5. Kontratuaren finantzaketa Nafarroako Gobernuak eman beharreko dirulaguntza baten mende dagoenez, **kontratua finantzatu behar duten baliabideen benetako bermatzearen baldintza etengarriaren mende jarriko da adjudikazioa** (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. xedapen gehigarria).

3. 2025/15 ZENBAKIKO AURREKONTU ALDAKETA: DIRU-SARREREN BITARTEZ KREDITUAK SORTZEA (ASEGURUAREN KALTE-ORDAINA).

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AC9F FVHR YN2M PDAT

AKTA 2025-11-12 (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 241578

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

3tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2025/11/12

- Kontu-hartzaileak 2025eko azaroaren 11n egindako txostena. Bertan adierazi du Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak 5.319,18 euro ordaintzea onartu zuela, 2023ko maiatzean Altzate Ikastolan izandako uholdeek eragindako kalteak konpontzeko, eta 2025eko aurrekontuko gastuen zerrendan ez dagoela obrak egiteko aurrekontu kontsignazio nahikorik. Beharrezkotzat jotzen du aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetzea kredituak sortzeko.

- Ondoko hau dela kreditua behar duen aurrekontu aplikazioa:
1-3239-21200. Ikastolaren mantentze lanak. 5.319,18 €.
Zenbateko osoa, 5.319,18 €.

- Gastua ondoko diru-sarrera kontu sailarekin finantzatuko dela:
1-47003. Aseguruen kalte-ordaina. 5.319,18 €.
Zenbateko osoa, 5.319,18 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 218.2 artikuluari, indarrean dagoen aurrekontuko 13. exekuzio oinarriari, eta aurrekontuen eta herri gastuaren arloan 2/1995 Foru Legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 33.2 artikuluari jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA diru-sarreraren bitartez kredituak sortzeko espedientea onestea (2025/15). Aurrekontu aldaketak indarra hartzen du erabaki honekin.

Beste aztergairik izan gabe, 08:10ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

Sinadura digitalak. Idazkaria eta alkatea.



SINATZAILEA

Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGANA
2025/11/12

